


Euskalkiak eta politika

Orain dela aste batzuk *Euskara batua, bizkaiera eta zuberera* izenburuko artikulua argitaratu zioten Mikel Hernandez Abaituari *erabili.com* web-gunean. Idazki horrek hausnarketa asko eragin zizkion Unai Brea kazetariari, zeintzuen fruitua aldizkari honetan bertan argitaratutako *Euskara bitan zatitu nahi zuten haiek* (ARGIA, 2183. zenbakia) artikulua izan baitzen. Hona hemen Hernandez Abaituaren ihardespena.

MIKEL HERNANDEZ ABAITUA

ARGI ETA GARBI esan nahi dut, ezer baino lehen, nire asmoa ez dela inoiz izan euskara bi edo hiru zatitan puskatzea, ezta Euskal Herria ere. Artikulua euskalkiei buruzko maitasunez egin nuen batez ere, ez Euskal Herriarekiko aiherez, aski garbi baitago, ondikotz, zuberera hiltzear dagoela, eta bizkaieraren iraupena arrisku handitan –hemen ez dut Koldo Zuazoren terminologia erabiliko aurreko artikuluan bezala, erosoagoa izango delakotan–. Agian bizkaiera *light* bat salbatuko da, eta ez dirudi horretaz jende asko kezkatzen denik Euskal Herrian. Beste euskalkiak ere galduko dira ziur aski, baina horiek ez daude euskara batutik hain urruti eta euskara batuaren bidez salbatuko dira nola edo hala.

Alabaina, gai hau ateratzerakoan jende asko gehien kezkatzen duen kontua bertatik atera daitekeen ondorio politikoa da. Ikuspegi horretatik ikusita ez bide zaie asko axola zuberera eta bizkaieraren etorkizun iluna, ez larregi behintzat –ez dut esan nahi Unai Brearen kasua denik–, beraien helburua Euskal Herri independente sendo eta euskalduna lortzea delako. Ni ere nolabait ados egon ninteke horrekin, baina ez dut uste euskalki batzuei garrantzi handia ematea –eta handiena hizkuntzaren maila ezagutzea izango litzateke batzuen kasuan– kaltegarria izango litzatekeenik eraikuntza nazionalerako.



Hori garbi balego, ni ere euskalkiak poliki-poliki desagertzearen alde egongo nintzateke ezinbestez, etsita eta goibeldurik –hala ere ez dut ulertzen hainbeste bizkaieradunen autoimmolazio linguistikoa, edo oso ondo ulertzen dut eta orduan miresgarria iruditzen zait haien sakrifizioa eta apaltasuna–. Alabaina, badira nire ustez beste soluzio batzuk. Gurea konpontzeko bertatik bertara ezagutu ditudan beste errealitate batzuk etsenplu ona izan litezke. Adibidez, Lleidako Aran

haranean hiru hizkuntza ofizial dituzten bezala, zergatik ez egin gauza bera Bizkaian ere, bizkaieraren eremu osoan ez egin arren? Zaillegia? Garestiegia? Bizkaiera batua aski prestatuta dago horretarako jadanik. Zubererarekin zailagoa eta ezinezkoagoa, noski, egoera administratiboa kontuan hartuta. Aranerak –irakur bedi gaskoia– eta katalan batuak duten distantzia linguistikoa ez da ziur aski bizkaieraren eta euskara batuaren artekoa baino txikiagoa, eta ez da horregatik

Aran harana Lleidatik separatu. Oso maiz joaten naiz hara eta badakit eskolan naturaltasun osoz ikasten dituztela hiru hizkuntza ofizialak —bide batez esan dezadan Aran harana dela gaskoia ofiziala den munduko leku bakarra, oker ez banago—. Frantsesez ere oso ongi moldatzen dira, eta ez dira horregatik ingelesaz ahazten.

Zer da hizkuntza, zer dialekto?

Oso kontu labainkorra da hizkuntza eta dialektoena. Arrazoi politikoetan oinarritzen dira erabaki asko, ez linguistikoetan. Zer den dialektoa oso garbi dago hizkuntza bat beste batek atera dela froga daitekeenean, baina guri suertatzen zaiguna hizkuntza erromantzei gertatzen zaienaren antzekoa da. Berez hizkuntza erromantzeak latinetik atera ziren, eta horregatik dialektotzat har ginitzake harekiko, baina hainbeste urrundu zirenez gero eta beraien artean elkar ulertzeko gero eta zailtasun handiagoa zegoenez gero, gehi interes politikoak, ez zen oztopo handirik izan batzuentzat hizkuntzaren estatusa eskuratzea. Beste batzuei ukatu egin zitzaion hasieran, arrazoi politikoengatik batez ere, katalanari gertatu zitzaion bezala. Denboran atzera egiten badugu, garbi dago euskalki guztiak protoeuskara beretik datozela, hura zehazki nolakoa zen ez dakigun arren; erromantzeak ere beren protohizkuntza den latinetik datoz, eta denboran atzera eginez gero, haiek ere, euskalkiak bezala, antzekoagoak izango ziren ditugun lehen testigantza idatziak baino lehenago ere. Hori ez zen oztopoa izan, elkarrengandik asko urrundutako dialektoak zirenez gero, hizkuntza kategoria eskatzeko eta lortzeko, nahiz eta gero beraien arteko maileguen bidez elkar aberastu. Baina erromantzeen protohizkuntza, latina, oso ondo



Arana haranean (irudian Bossòst herria) ofizialak dira gaztelania, katalana eta aranera. Zergatik ez egin gauza bera Bizkaian, bizkaiera ofizial bihurtuz batuarekin batera?

ezagutzen badugu, protoeuskara hipotesi hutsa da, erromatar garai-ko harri-idazkun akitaniarrak badi-tugu ere; oso hitz gutxi, zeintzueta-tik batzuk Aran haranean bertan agertu baitziren hain zuzen ere: *anderexo/ihrrberrixo*.

Ez dut uste euskalki batzuei garrantzia ematea kaltegarria izango litzatekeenik eraikuntza nazionalerako

Agian ez gara behar bezainbeste konturatzen, euskara bere osotasunean salbatzeko borroka gogorrean gabiltzalako, gure benetako altxorra ez dela euskara batua, euskalki biziak baizik. Euskara batua batez ere idazteko sortu zen, batzuetan ahozko komunikabideetan-eta, oso beharrezkoa bada ere, baina telebistaren eraginagatik

agian euskalkien lehengo prestigioa eta duintasuna galarazten ari da. Euskararen iraupena ezinezkoa da euskara batua gabe, baina ezta euskalkiak gabe ere ziur aski. Horra hor oreka zaila. Hizkuntzen errealitatea oso konplexua da hitz gutxitan azaltzeko. Hizkuntzen alderdi afektiboa oso garrantzitsua da. Gerta liteke Bizkaian eta Zuberoan euskara batuaren bidez euskara hizkuntza gisa hasieran salbatzea, baina epe luzera zeharo galtzea, karga afektiborik ez ukaiteagatik. Azkenean gerta liteke jendeak gurasoen hizkuntza gaitzestea euskara batua ez delako, eta euskara batua ere bai eskolako hizkuntza hotza delako. Ez dakit ez ote den horixe bera gertatzen ari Gipuzko-ako zenbait lekutan ere, euskara batua eta gipuzkera hurbilago egon arren. Euskara batua egoera sendoan dagoen une honetan gauza hauetaz haboro hausnartzeko garaia iritsi da ziur aski, belu izan baino lehen. ■

Babeslea: Getxoko Udala